

Alaves ♦ Atezainaren zalantzak hor dirau

Kike, edo postuari nola eutsi

Atezainak zailtasun handiak izan ditu beti titular izateko

Xabier Fernandez / Gasteiz

◀ KIKE BURGOS Alaveseko atezainaren patua dirudi: profesional bezala hasi zene-
tik izugarritzko zailtasunak
ditu postuari eusteko. Bara-
kaldon, 1972ko irailaren
24an jaiotako mutilak berebi-
ziko ezaugarriak ditu atezai-
na izateko, 1,89 metroko ga-
raiera eta 82 kiloko pisua,
gorputz ona beraz.

Hala eta guztiz ere, ezinbes-
tekoa dena falta bide zaio as-
kotan: konfiantza, bai bere
buruan baita entrenatzaileen
aldetik ere. Aste honetan us-
tezko ordezkoekin entrenatu
da, eta, Esnalek atzo esan
zuen bezala, aipatu dugun kon-
fiantza horretan dago arra-
kastaren gakoa, batik bat ate-
zainaren kasuan: «Lan talde
profesional batean denetarik
dago, egun onak, txarrak eta
baita erregularrak ere, eta
bizpahiru postu konfiantzaz-
koak ditugu eta, beraz, man-
tendu beharrekoak. Dena
den, baliteke atseden bat har-
tzeko beharra izatea halako
postuetan ere konfiantza be-
herantz baldin badoa. Eraba-
ki behar bada, erabakiko da,
baina ez dugu osasuntsu da-
goena aldeztu aurretik gaixotu
behar».

Javier Clementeren esku-
tik egin zuen debuta 90-91ko
denboraldian, Castellon,
1991ko martxoaren 16an,
eta 2-0 galdu ondoren atezai-
na aulkira itzuli zen eta tek-
nikoa etxera abiatu zen. Izan
ere, aukera pargabea izan
zuen Kikek hurrengo denbo-
raldian, baina Ligako 22 par-
tidu soilik jokatu zituen,
titulartasuna eskuratzeko
aukera galduta. 92-93ko
denboraldian ez zuen Ligako
partidurik jokatu, 93-
94koan bakarrik jokatu zuen
eta 94-95ean erabat geldirik
segitu zuen. Iruk eta Valen-
ciak itxi zioten bidea, eta
Mallorcara joan zen. Han
Xabier Manzisorrekin izan
zuen lehia eta, azkenean, 31
partidu jokatu zituen lehen-
dabiziko denboraldian. Han
ezagutu zuen Manek. Bazi-
rudien titulartasunari eutsi-
ko ziola behin betiko, eta
denboraldiko jokalaririk
garrantzitsuenetako bat izan
zen. Lehen Mailara igota,
erronkari eusteko prest zego-
en, baina Hector Cuperrekin
batera Roa atezaina heldu
zen, eta 14 partidu jokatu
zituen soilik, horitetaik 13
titular bezala.

Kikek berak Cuperren eta
Roaren arteko adiskidetasu-



Kike Burgos atezaina.

nari leporatzen zion errua,
baina azken finean maletak
egin behar izan zituen Gas-
teizera etortzeko. Mallorcak
berreskura dezake atezaina
ekainean, 200 milioi ordain-
du eta gero, baina badirudi
Kikerengeroa ez dagoela
Mallorcan. Gasteizen Mane-
ren konfiantza omen du
Kikek, baina haren hitzak
entzun eta gero edozer gerta
daiteke.

Halaxe gauzak, nola dago-
en garbi adierazi du Kikek:
«Minduta nago, zaleen txis-
tuak ez baintuen espero.
Minduta nago, baina ez naiz
etxera negarrez joango. Etxe-
an txistuak entzutea tristea
da oso». Titulartasunari eu-
tsiko dion ala ez argitzen den
bitartean, bere patuari aurre
egin beharko dio Kikek.

Tito, borrokalari isila

■ MANEK ez du maite
Tito. Gogorra badi-
rudi ere, Alfonso Su-
bero Tito atezaina
taldea uzteko ze-
rrendan dago Mane
heldu denetik eta ti-
tulartasuna izan on-
doren (38 eta 34 par-
tidu jokatu zituen
95-96an eta 96-
97an), iaz partidu
gutxi jokatu zituen
Ligan: hiru.

Lehen Mailan ego-
tea zer den badaki
Titok, Logroñesen
aritu zelako hiruga-
rren atzeain bezala,
Numanciara joan
aurretik, 91-92ko
denboraldian, eta
handik Sestaora
(92-93 eta 93-94).
Bizkaiko talde-
tik Gasteizera, eta ti-
tulartasunak zaleen
beroa ere eman zion.

Ez zuen, baina,
entrenatzailearen
begirunea eskuratu.
Hala ere, borrokalari
isila eta adiskide ona
da. Joan den igande-
an Kikek lehendabi-
ziko gola jaso bezain
laster, aulkitik al-
txatu zen Tito adis-
kideari animoak
emateko. Kikerengero
inguruan zalantzak
dira, eta Titoren ka-

suan ez da gutxiago-
rako izango: ez al da
kolpe handiegia
izango aste barruan
haren inguruan piz-
tu diren itxaropenak
gauzatzen ez badi-
ra? Eta Kikek ti-
tulartasunari eusten
badio, ez al da trufa-
turik sentituko en-
trenamenduetan ti-
tularrekin aritu eta
gero?